

Zuhotza
euskaro elkarlagoa...deba

Berriketan

Debako herri aldizkaria - 199. alea - 2015eko abuztua



Giro ederrean, kolorez blai
euskal udalekuetan



SUKIA

Fruitu eta Barazkiak

Lersundi, 13
Tel.: 943 192 386
Deba (Gipuzkoa)



ASKETA, S.L.

ERAIKUNTZAKO ZERBITZU INTEGRALA

OFICINAS Y EXPOSICION:

Maxpe, 3-5 - 20820 DEBA (Gipuzkoa)
Tel.: 943 191 952 - Faxa: 943 192 460
E-mail: asketa@telefonica.net
www.asketa.net

ALMACÉN:

Parque Empresarial Esser - Pabellón NN 8-9
20850 MENDARO (Gipuzkoa)



Hazitik
ZURE EKODENDA

San Roke Kalea 6, DEBA
tel.: 943 02 99 63
e-mail: hazitik@gmail.com

kutxa
kutxabank

AUKERA INMOBILIARIA

www.aukera-inmobiliaria.com
Aukerarik onena!

943 12 13 95



URDAITEGIA AITTOLA HARATEGIA

Astillero, 3
Tlfnoa.: 943 191 776
20820 DEBA

AZOKA

LENTZERIA
MERTZERIA

Itur kalea, 9 • Tlfnoa.: 943 192 722 • DEBA

urlo

SERVICIOS INMOBILIARIOS
HIGIEZINEN ZERBITZUAK

Sokagin, 2 bajo
Apartado 3
20820 DEBA

Tel.: 943 192 471
Tel./Fax: 943 192 303
urlo@urlosi.net

API
Nº 379

Higiezin zerbitzuak
Aholkularitza
Higiezin Agentzia
Komunitateen administrazioa
Tasazioak/ Balioztaketak

SAGARMIÑA

Hondartza, 3-4 behe - Apartado, 31
20820 DEBA (Gipuzkoa)
Tel./Fax: 943 192 249
Mugikorrak: 629 639 685 / 629 641 940
sagarmina@sagarmina.com
www.sagarmina.com

haizea
estetika

Tlf. 943 029 607
Iturkale 22. 1 eskubia
sarrera Zesterokua plaza tik

ISABEL FRUTADENDA

Sokagin Kalea, 2 behe . 20820 DEBA
943 029 186

MAZKUNE
1975etik zuekin!

ARKATZA
Liburudenda

Tel.: Ostolaza, 3
943 192 057
20820 DEBA

Calbeton

JATETXEA

Agustín Larrañaga Elorza

Denboraldiko platera
arrain eta barazkitan

Hondartza kalea
Tlfnoa.: 943 191 970
20820 DEBA (Gipuzkoa)

L.A.

LARRAMENDI ANIAK, S.L.

- LIXATUAK
- BERNIZATUAK
- PARKET
- PARKET FLOTANTEAK

Tlfnoa.: 943 021 959
Mobila: 670 411 786
Tel.-Fax: 943 191 782

ARTZABAL AUZOA
20820 DEBA (Gipuzkoa)

sasoiiko

ekodenda,
dietetika,
belardenda

ZERBITZUAK:

- * Fisioterapia: telarterapia (INDIVA)-drenaje linfático -lesioak -...
- * Gimnasia hipopresiboak
- * Dietista
- * Podologia

Lersundi, 14 943 19 24 42 sasoiiko@hotmail.com

Ifar kalea, 12 behea
20820 Deba

Telefonoa: 943 19 13 83

Aldizkariaren e-maila:

berriketan@zuhatza.com

Elkartearen e-maila:

koordinatzailea@zuhatza.com

Argitaratzailea:

Zuhatza Euskara Elkarte

Erredakzio taldea eta

kolaboratzaileak:

Nagore Dorronsoro, Xabier Laka,

Ina Oiartzabal, Koldo Aperribai,

Lukax Dorronsoro, Izaro

Aulestiarte, Ibon Urkia, Maite

Rodriguez, Gilen Garcia, Eider

Zulaika, Idoia Gereñu, Goizane

Aizpurua, Haika Aizpurua,

Nekane Goikoetxea, Mattin

Urbietia, Mikel Aizpurua,

Debako Gazte Asanblada,

Mendata BHI-ko prentsa tailerra.

Koordinatzailea:

Izaro Aulestiarte

Azaleko irudia:

Ander Salegi

Publizitatea:

Joseba Escudero eta

Koldo Aperribai

Tlfnoa.: 943 19 13 83

Logotipoaren diseinua:

Iñaki Elosua

Maketazioa:

Leire Rubio

Inprimategia:

Euskalinpri

Tirada:

1.400 ale

Lege gordailua:

SS-246-2009

ISSN 2171-7656

OHARRA:

Berriketan-ek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta GUTUNAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitz guztiek ondo identifikatuta egon beharko dute argitaratu ahal izateko. Ez ahaztu datu hauek jartzea: izen-abizenak, NAN eta telefono zenbakia, nahiz eta gero izen-abizenak soilik argitaratu. Idatziak gehienez 25 lerro izan beharko ditu eta berriketan@zuhatza.com helbidera bidali beharko dira, hilabeteko azken astelehena baino lehen.

ARGITARATZAILEA



LAGUNTZAILEAK



Debako Udala



HEZKUNTZA, HEZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURAREN SAHIA
HEZKUNTZA POLITIKAREN SAHIA
DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA
Departamento de Política Lingüística



Gipuzkoako Foru Aldundia

aurkibidea

05

KOLABORAZIOA

Debako Gazte Asanblada,
("Begiak irekitzean")

06

KRONIKA

Flyscha gaez ezagutzeko aukera, Debanaturak antolatutako irteeretan



12

KRONIKA

Aspertzeko tarterik ez
Gaztelekuak uda honetan antolatutako ekimenetan



14-15

ALBISTEAK

Bidaiariz betetako itsasontziak;
Harrera polita haurrentzat antolatutako ekimenei...



16-17

SAN ROKEAK

Herriko jaietan murgiltzeko prest gaude dagoeneko!



Jose Angel Ligerio Martinez

18

ZERBITZUAK



Berriketan-ek ez du bere gain hartzen GUTUNAK atalean adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira argitaratu ahal izateko. Ez ahaztu datu hauek jartzea: izen-abizenak, NAN eta telefono zenbakia. Bidali helbide hauetara: berriketan@zuhatza.com edo koordinatzailea@zuhatza.com.

Deba garbi batengatik?

Gipuzkoako Foru Aldundiak 2016rako hondakinen %60ko birziklatze tasa lortzea du helburu.

Kopuru horietatik oso urruti gaude Deban. Debabarreneko Mankomunitateak emandako datuen arabera, Debako gaur egungo birziklapen tasa %25ekoa da. Datuak kaskarrak dira eta arazo larri honen aurrean Debako herritarren artean dagoen kontzientziaketa eskasa erakusten dute.

Egoera horretaz jabetuta, orain dela pare bat urte inguru, debar talde batek Debakolore izeneko taldea sortu genuen. Taldeak iraun zuen denbora laburrean, helburua izan zen birziklatu beharraz debarrek kontzientziatzen saiatzea. Gure ekimenetako bat hondartzako murala egitea izan zen, 3Rak agerrarazteko: muRriztu, biRziklatu, beRrerabili.

Gainera, aurtengo martxoan

konsulta egin zuen Debako Udalak. Debar-itziartarren %55ak parte hartu zuen kontsultan eta, hondakinak gaika biltzeko, bost edukiontzi desberdin ipintzea erabaki zen bertan (papera, plastikoa, beira, organikoa eta errefuxa); horietatik bik (organikoak eta errefuxak) txipa edukiko dute, %60ko birziklapen tasa, gutxienez, lortzeko helburuarekin.

Egun hauetan sorpresa desatsegin bat eduki dugu. Debako Udalak ezabatu egin du gure murala. Ez dakigu zergatik egin duen, baina ez diogu justifikaziorik topatzen. Hainbeste dagoenean egiteko Deba Gipuzkoako helburuetara iritsi dadin, jendea kontzientziatu beharra dagoenean, badirudi hiri-hondakinekin gaizki ari garela gogorarazi nahi digun mezularia akabatu nahi dela.

Bitartean, kaleak hondakinez zikin daude. Egun batean bai, eta

hurrengoan ere bai, edukiontziak gainezka daude eta hondakinak pilatu egiten dira kaleetan.

Zer egiten du Debako Udalak arazo hauek konpontzeko, Debakolorener murala ezabatu? Ez dugu uste konponbidea hori denik.

Debakoloreko kide izan ginenok eskatzen diogu Debako Udalari jar dezala berehala martxan plan bat Diputazioak markatzen dituen helburuak lortzeko (Debako Udalak aho batez onartu zituenak 2014ko martxoaren 27ko plenoan eta debar-itziartarrek berretsi eta zehaztu zituztenak 2015eko martxoeko kontsultan) eta, kontzientziaketa planaren barruan, berregin dezala hainbeste maitasun eta asmorekin hondartzan egin genuen murala: muRriztu, biRziklatu, beRrerabili.

DEBAKOLORE



Berriketan aldizkariaren hurrengo alea, urrian!

Esku artean daukazuen aldizkariaren ale honekin agurtzen du Zuhatza Euskara Elkartek ikasturtea. Abuztuaren erdialdean oporrak hartuko ditu elkarteak, eta baita aldizkari honek ere; hori dela eta, urtero bezala, irailean ez dela

Berriketan-ik kaleratuko gogorarazi nahi dizuegu. Hurrengo alea urrian plazaratuko dugu. Ordura arte agurtzen zaituztegu, beraz!

Aldi berean, lerro hauen bitartez, herriko festetan zein oporraldietan

ondo pasatzea opa dizuegu. Eta, badakizue, irailetik aurrera izango dugu berriz ere elkarren berri, besteak beste, hitzordua jarrita baitugu Euskal Jaian. Ondo izan bitartean!

Zuhatza Euskara Elkartea



Begiak irekitzean

Atzo goizean, loari aurre egin eta begiak ireki nizkion egun berri bati. Zerbait berria entzun nahian, croissant afrantsesatu bat kafesnearen laguntzaz irensten nuen bitartean, irratihari hitza eman nion. Tamalez, ezer berririk ez. Beraz, inoiz hautsiko ez dudan errutinaren esklabo, kalera joan nintzen.

Kalean, betiko langile berberak beren tripa asezinak asetzeko asmoz; betiko uso ezjakin, baina alaiak, hodeien artean jolasean; betiko berebil zaratatsuak herriko bidezidorretan barrena; eta, zoritxarrez, betiko hizkuntza atzerritarra nagusi jendearen ezpainetan, gaztelania.

Horrek hainbat galdera dakartza ene burura. Zer dela eta egoera hau? Nola konpondu? Litekeena da erantzun zehatzik ez izatea hain xumeak eta, aldi berean, hain konplexuak diren galdera hauek. Hala ere, arazo horren arazoak hainbat faktoretan oinarritzen dira.

Alde batetik, oso nabarmena da moda berri eta modernoek, komunikabideek eta globalizazioak oro har gazteengan duten eragina. Aipatutako mugimenduetan, gaztelania da nagusi. Ildoari eutsiz, gazte askok nahiago dute nazioarteko hizkuntza botereitsu eta inperialista batez hitz egin, bertako hizkuntza zapalduaz baino.

Beste aldetik, posible al da Euskal Herrian

inongo oztoporik gabe euskara hutsean mintzatuz bizitztea? Argi dago ezetz. Osasun-zerbitzuetan, garraio publikoan edo administrazioan ezinezkoa izan ohi da euskaraz komunikatzea. Horregatik, eremu publikoetan euskararen normalizazioa bultzatzea ezinbesteko pausoa da gure hizkuntzaren aurrerapenerako.

Azkenik, askoren aburuz, atzerritarren errua omen da euskararen erabilpen urria. Atzerritarrek eragina badute ere, geuri dagokigu mende askotan zehar arazoei ixkin eginez aurrera joan den hizkuntza hau bizirik mantentzea. Hizkuntza bat ez baita galtzen ez dakitenek ikasten ez dutelako, dakigunok hitz egiten ez dugulako baizik.

Atzo goizean begiak ireki nituen bezala, gaur ere irekiko ditut, eta bihar ere irekiko ditut; baina espero dut etorkizun hurbileko egun batean begiak irekitzean, euskaraz bizi den herri batean esnatzea. Oskorrik zioen moduan, ez baikara gure arima hiltzen uzteko bezain odolgalduak.

Gartxot Fidalgo eta Ekaitz Zubimendi




mo **MULTIÓPTICAS UZURI**

OSTOLAZA, 7 • 20820 DEBA
TEL. 943 19 21 92

MULTIÓPTICAS
Uzuri

ZURE
ENTZUMENA
ZAINTZEN



RPS: 183/12

Gaueko safaria Debako flysch-biotopoa



Irten ginenean, banekien flyscheko gauak irteeraren parte-hartzaileen espektatibak beteko zituela, baina inoiz ez nuen imajinatu hain harrigarria eta sorpresaz beterikoa izango zenik.

Uztailaren 17an, ostirala, gaueko 22:30ean, Debako guraso eta ume talde batekin elkartu nintzen hondartzako paseoa, Itsas-gainen ondoan, "Flysch at Night / Flysch-a gauaz" izenpeko bisita programaren baitan, Deba-Zumaia babestutako biotopoa marearteko zabalgunearen fauna ezku-tuaren bila joateko asmoz.

"Flysch-a gauaz" irteera berezi hau, ikuspegi edota dimentsio berrira eta bizitza, forma eta kolore askotako unibertso fantastikora eramaten gaituen itsaso aldera dagoen atetik so egin eta bisita bakoitzean gauza berriak aurkitzeko ametsa litzateke niretzat.

Bai arroketan (marearteko zabalgunean) bai Lapari hondartzaren inguruetan animalia piloia dago; batzuk ezagunak izango dituzu, baina gauez Flysch-Biotopora burutzen ari garen irteera hauetan asko izango dira ezagutzen ez dituzunak, edota arrandegietan eta akuarioetan bakarrik ikusi dituzunak ere.

Gaueko irteera honetan, lagun batek dioenez, "gaueko izurdeak, fokak eta marrazoak preso ikusi nahi dituenak akuarioren batera jo beharko du, baina ilunabarrean euren kasa paseatze aldera ateratzen diren espezie arruntak bertatik bertara agurtu nahi dituenak, berriz, Debako hondartzan du aukeramaukera, parkinetik hamar minutura".

Lehenengoz, itsasertzean oso ugariak diren **lapei** erreparatu genien. Baina itsasertzean ugariak diren izakiak, zalantzarik gabe, arroketan substratuari itsatsita bizi diren **itsas-ezkurrak** (*Balanus balanus*) dira. Han, harkaitzen artean, zirrikituetakoz hezetasunaz baliatuz, **muskui luak eta itsas barraskiloak** ere bazeuden.

Berehala, itsasertzeko arroketan, putzu-zuloetan, bizi den arrain arruntenetakoa aurkitu genuen, **Kabuxa** (*Blenius pholis*), ezkatat galdu eta haitzartean labainka "ibiltzen" ikasi duen arraina da.

Pixka bat aurrera jo genuen eta han, putzu batean, bere eremua zaintzen **Kabarroka** jauna aurkitu genuen. Tamainazko **izkirak**, **itsas tomateak** (aktinia gorria), **anemonak** (margaritak), mota eta tamaina desberdineko **karramarroak**,...

Geroztik, flyschera egindako gaueko irteera hau are interesgarriagoa bilakatu zen, izan ere, **arrain-espezie ugari** azaltzen hasi baitziren. Lehenengoa, **durdo** pare bat izan ziren. Pixka bat aurrera jarraituz, putzu zabal baten inguruan, hara zer aurkitu, eta arrainkume pila bat!; **haitzetako barbarinaren** eta **mihi-arrain** arruntaren kumeak, eta **sepiak** edo **txokoaren** (molusku zefalopodoa) kumeak ere antzeman genituen.

Baina, sorpresaz beteriko gaueko flyscharen irteera berezi honek beste aurkikuntza harrigarriago batzuk ere gorde-rik zeuzkan gure zain. Bat-batean, hantxe, algekin erabat kamufaturik, gure kostako karramarrorik handiena dena aurkitu genuen, **"Txangurroa"** hain zuzen.

Amaitzeko, gure oinen artean, urertzeko hondo area-tuan igeri egiten **"aingira"** bat agertu zen. Itzultzeko ordua iritsi zen, ia bi ordu eta erdi igaro baikenituen flyschean. Irteera hasi baino lehen nagusi zen logurea emozio bilakatu zen gero, gaueko flysch magikoaren eraginez.

Flyscharen Safari gautar eta magiko honen ostean, hurrengo irteerak zer gordeko ote digun galdetzen diot nire buruari. Izan ere, zalantzarik gabe argi daukadana da irteera bakoitza desberdina izaten dela beti, emozioz betetakoa benetan. Hurrengora arte!

Diego Mendoza (Debanatura)

Herri bidea garbituta dago: mesedez, erabili!



Deba eta Itziar lotzen dituen herri bide zaharra garbituta dago, uztailaren 19an egindako auzolaneari garbitua.

Bere sasoiari auzolanerako egin zen deialdia, oraingoan erabilerarako egiten du Auzo Udalak. Bidea betikoa da, gure aitona-amonek erabilitakoa, bertatik pasatu ziren guztien aztarnez landua. Iraganeko

bidea izanik, etorkizunean ere erabiltzeko aukera eman nahi izan diogu garbitu honekin, aztarna berriek zabaldu dezatela bide zaharra: San Rokeko ermita aurretik sartu eta Pistonako zelai azpitik pasa ondoren Zabale baserrian egiten du bat zementozko pistarekin. Ansorregi baserrien artean dihoan bidea jarraituz, eskubitara azaltzen

zaigun xendak eramango gaitu Olabe baserri-raino. Bertatik Lizarbeko eskailerak igota, Itziarko plazara iritsiko gara. Bidea eroso da, ez du malda pikorik, babesean eramango gaitu bai gorantz eta bai beherantz. Erabili, ez zarete damutuko.

Itziarko Auzo Udala

2015-2016 ikasturtea
Matrikula zabalik irailaren 1etik 25era

DEBABA UDAL EUSKALTEGIA
 Ifar kalea, 12
 Telefonoa: 943 19 22 36
 e-posta: udaleuskaltegia.deba@debabe.eus

euskarak batzen gaitu
 EL EUSKERA NOS UNE

UDAL EUSKALTEGIAK
 euskara klaseak • clases de euskera

ONDO PASATU SAN ROKE JAIK

CURSO 15/16 IKASTURTEA



Kolorez Blai Udalekuak

Konturatu orduko pasa da uztaila! Koloreak dantzan jarri ditugu aurten ere kalez kale Deban zein Itziarren! Guztira 245 haur bildu ditugu aurtengo Kolorez Blai euskal udalekuetan eta primeran atera da dena. Oso pozik gaude, uda zoragarria pasa dugu eta! Hemen bildu ditugu uztailean egindako ekimenetan ateratako hainbat argazki, eta baita haurrek idatzitako bertso eder bat ere. Gure partetik guzti-guztiori eskerrak ematea baino ez zaigu geratzen. Ondo pasa oporrak eta hurrena arte! Mila esker!!

Zuhatza Euskara Elkarteko Kolore Anitz Aisialdi Taldea

*Kolore Anitzen gaude
Haur ta begirale
Kalejiran gabiltza
Denok kalez kale
Arroxa, berde, urdin
Daude hainbat talde
Animau ta apuntau
Gu zuen zain gaude*

Doinua: "Astoa ikusi nuen"





Irudiak: Ander Salegi eta Kolore Anitz



Argazkian ageri diren pertsonak identifikatzeko lana Jose Luis Albizuk eta Esperanza Beitiak egin dute, beste hainbat lagunen kolaborazioarekin. Ander Salegiren laguntza izan dute irudiaren kalitatea hobetzeko orduan.

DEBA: 2008ko apirilaren 30ean ateratako argazkia. “Arbil” Jubilatutako Elkartearen 25. urteurrena.

- | | | |
|--------------------------------|-----------------------------|-----------------------------|
| 1- Juan Etcheto | 18- Kontxi Unanue | 35- Teresa Aranberri |
| 2- Manuel Sobrado | 19- Inmaculada Lobo “Adita” | 36- Juana González |
| 3- Ignacio Olazabal | 20- Paco Idueta “Istiña” | 37- Conchita Arrizabalaga |
| 4- Teófilo Carrillo | 21- Milagros Lazkano | 38- Prudencio Arrizabalaga |
| 5- José Etxabe | 22- Maribel Orejón | 39- Valentín Becerra |
| 6- Julia Ortiz de Urbina | 23- Nemesio Carrocero | 40- Jesus Maria Albizu |
| 7- Kontxa Arrizabalaga | 24- | “Antxondo” |
| 8- Donostiako emakume bat | 25- Sabino Alberdi | 41- Michael Sanz |
| 9- Virgilio Matías | 26- Serafín Portero | 42- Ascensión Membrilla |
| 10- Teresa Bombín | 27- Miguel Herrero | 43- Mari Angeles Rojo |
| 11- Juana Jaramillo | 28- Nicolás Becerra | 44- Dativo Pérez Camarero |
| 12- Felisa Zubicarai “Ondarru” | 29- Mari Luz Zabala | 45- Victoria de la Peña |
| 13- Claudio Usobiaga | 30- Juana Zabala | 46- Mari Jose Gil |
| 14- Fidel Carrillo | 31- Prudencio Salegi “Doni” | 47- Trinidad Corral |
| 15- Román Galarraga | 32- Miguel Rubio | 48- Diocleciano Asensio |
| 16- Maite Barrenetxea | 33- Juan Aldalur | 49- Maria Arriola Aranberri |
| 17- Federico Varela | 34- Elena Mendizabal | 50- Lourdes Egaña |



51- Carmen Martín
 52- Mariano Gurrutxaga
 53- Gloria Montoro
 54- Tomasa Aizpurua
 55- Maritxu Aizpurua
 56- Encarna Casado
 57- Sabino Longarte
 58- Jose Mari Larrañaga
 "Palo"
 59- Arantza Pagnon
 60- Jose Mari Arana
 61- Elena Etxeberria

62- Catalina Ziarán
 63- Josefina Osa
 64- Dorinda Rodríguez
 65- Pilar Zulaica
 66-
 67- Pilar Orejón
 68- Gregoria Osa
 69- Javi Belaustegi
 70- Maria Pilar
 Garagarza
 71- Itziar Arrieta
 72- Mari Rosa Peña

73- Juan Larreina
 74- Andrés Oñederra
 75- María Osa
 76-
 77- Ignacio Goikoetxea
 78- Teresa Garnatxo
 79- Julián Larrañaga
 80- Josefa Larrañaga
 81- Pilar Agirre
 82- Itziar Alústiza
 83- Miguel Fernández
 84- Koro Bergaretxe

Aspertzeko tarterik gabe ibili gara Gaztelekuan; biba zuek!



Aurten ere, Gaztelekutik Deba-Itziarko 12-16 urte bitarteko gazte guztiekin ekintzak egiten saiatu gara. Batzuekin elkar hobeto ezagutzeko, besteekin harremana indartzeko, urte osoko lana saritzeko zein agur esateko.

Durangoko bolatokira irteera, Hondarribiko aterpetxera, Errealaren entrenamendua ikusi eta zinemara, sexu hezkuntza saioak, Donosticup futbol txapelketa, haurrentzako ur jolasak, rafting egitera, Gamarrako igerilekura, aquaparkera, Donostiara irteera, bolei txapelketa denentzat,...

Ezin aipatu gabe utzi Kuadrillategirekin Askizuko aterpetxean eta Port Aventuran pasatako egunak. Hemen behean bildu ditugu egindako ekintzen argazki batzuk.

Bukatzeko mezutxoa azken ikasturteko 16 urteko belaunaldiari eskaini nahi diogu, hemendik aurrera hastera zoazten garai berri honetan zoriontasun osoa opa dizuegula esateko. Eskerrik asko zuek ezagutzeko aukera ematearren eta biba zuek!

Gaztelekuko hezitzaileak



Mendata ikastetxeko ikasleek amodiozko gutunak idatzi dituzte aurten ere. Horietako zenbait bildu nahi izan ditu *Berriketan* aldizkariak ale honetan, zuek guztiok gazteen lanak irakurtzeko aukera izan dezazuen.



Malen Egaña (2. maila)

Getarian, 2014ko irailaren 28an

Kaixo? Hola? Zer moduz?
Ez, ez, ez... Agian... Beno, baliteke... Ez, ez dut uste... Argh!
Zergatik egiten ote zait hain

zaila?! Hobe berriro hasiko banintz. Beno bai, beno ez. Ez dakit... Argh... barkatu, urduri samar nago. Jesus Maria! Nork konbentzituko ote ninduen hau egiteko... A bai, gogoan dut... Hasieran, baina, ez zirudien hain konplikatu... Ai ama... Seguru asko momentu honetan barrez arituko zara ni hain urduri imajinatzen, zeren, jadanik jakingo duzu agian nor naizen, bestela nork idatziko lizuke euskaraz, jakinda ez duzula piperrik ulertuko? Neuri bakarrik otu behar horrelako gauzak... Baina badakizu, gauzak konplikatzea gustatzen zait.

Badakizu zer? Askotan gogoan dut herria: familia, lagunak, etxea... Baina zu batez ere. A ze tontakeria, ezta? Noraino irits daitekeen pertsona batek sortutako hutsa. Ziur nago oraintxe bertan zuk bakarrik jartzen dakizun irabazle irribarre hori duzula aurpegian, ni zirikatzerakoan jartzen zenuen irribarre jostaria... Egia esan behar badut, ondo pasatzen nuen elkar zirikatzen genuenean. Oraindik gogoan dut futboleko baloia parkeko beste puntara bota eta "¡Joel! ¡Cómo se nota que eres vasca!" bota zenueneko. Jajajaja, horiek bai egun onak... Nire bihotzean dauzkat, zuk bezala eta batzuetan horregatik gorroto zaitut.

Gorroto, zure begietako itsasoak nire belaontzi txikia zure kostara eraman zuelako; gorroto, zure begiradek hitzek baino gehiago esaten zidatelako; gorroto, nahi zenuen guztietan irribarre txolin hura ateratzea lortzen zenedalako, nire harrotasuna pikutara bidaliz; gaue-ro-gaue ro zutaz pentsatzea lortu duzulako; zurekin igarotako momentu txiki guztiak gogoratzen ditudalako; egunean zehar neure buruari zer egiten egongo zaren galdetzen diodalako; orain, goizeko 5:45 aldera, gutun hau idazten ari naizelako; gorroto zaitut, bai, baina batez ere... maitemindu egin nauzulako.

Nola? Nik ere ez dakit. Zergatik zu? Misterio bat da. Dakidan gauza bakarra zera da, zure begirada urdin argiak aspaldi maitemindu ninduela, zure ideia txorrek beti irribarre bat ateratzen didatela, herrira noiz bueltatuko egunak kontatzen egoten naizela.

Egunen batean, eskutitz hau zuretzako gaztelarera itzultzeraz ausartuko naiz, eta bestela, beti gelditzen da Googleko itzultzailea erabiltzeko aukera, baina ez nizuke aholkatuko, "por experiencia".

Hurrengo arte, "un beso".

P.D.: Partida bat daukagu oraindik jokatzeko eta lasai, ez dudala errukirik izango.



Luken Urkiri
2. maila

BIZIA

Horrelakoa da bizia
txarra ona
beltza edo zuria
zurekin nagoenean
zuria da bizia
ostera urruti gaudenean
biok negar eta negar
almoada kontsolatzaile dugula.
Zergatik da horrela
eta ez beste modu batera?
biok beti juntatu, pozik
eta maitemindurik gaudela.
Itsasoan bakarrik bagina bezala
nahiko nuke egotea
elkarrekin gauden bakoitzean.
Badakit egun batean
amets hontatik esnatu
eta nire betiko logelan
betiko iratzargailuarekin
eta betiko armiarma sareekin
esnatu naizela
eta orduan...
zutaz pentsatzen egongo naiz
inoiz baino gehiago
maiteminduta.
Baina garbi baino garbiago
izango dut gurea amaiturik dagoela
horrelakoa da bizia.



Iñaki Beasain
2. maila

ZUREKIN DUDAN MAITASUNA

Zu ikustean
dardarka hasten naiz
zu ikustean
poza sortzen zait bihotzean
zu niri begira zaudela ikustean
txoratu eta gorritzen naiz
eta denbora geratu egiten da.
Bazkaltzen ari naiz
jolasten ari naiz
ohean nago
eskolan nago...
baina beti zutaz pentsatzen.
Jendeak esaten dit
beste mundu batean bizi zara edo?
Eta egia da
zure munduan
niretzako ezerk ez du zentzurik
zu hor ez bazaude.
Begirada bat
bi zurrumurru
hiru keinu
lau hitz
bost hasperen
sei sentimendu
zazpi amets
zortzi promesa
bederatzi irribarre
hamar pauso
baina maitasun bakarra
biok bat baikara.

Hasi gara ikusten bidaiariz betetako lehen itsasontziak

Deba eta Zumaia arteko itsas-irteera berriak jarri dira abian

Bidaiariz betetako lehen itsasontzi turistikoa uztailaren 29an iritsi zen Debara. Bidaiariak Zumaian ontziratu ziren eguerdi partean, eta ordubete berandua-go lehorreratu ziren Debako pantalan berrian.

Halaxe inauguratu zen, hain juxtu, portuan ezarritako azpiegitura berria. Agintari ugari bildu zituen inaugurazio ekitaldiak, hala nola Deba, Mutriku eta Zumaia alkateak, Debegesa garapen agentziako kideak eta Ana Oregi Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Politikako Sailburua. Ekitaldian bertan aurkeztu zituzten Euskal Kostaldeko Geoparkeak antolatutako bi itsas-irteera berriak.

Bisita gidatu berri horiek itsasontziz egingo dute Deba eta Zumaia arteko ibilbidea, bi zentzuetan. "Deba-Zumaia itsasontzian" eta "Zumaia-Deba itsasontzian" dira bi irteera berriak. Abiapuntu eta helmuga desberdina duten bisita interpretatuak dira (ordubete ingurukoak), eta bisitariak Geoparkeko bi herri hauek patxadaz ezagutzeko aukera eskaintzen zaie.



Itzultzeko aukerak dira, halaber, Zumaia eta Deba arteko GR Talaia kostaldeko trekkinga egin nahi dutenentzat. Bisitak www.geoparkea.com webgunean on-line erreserbatu daitezke, baita Geoparkeko hiru turismo bulegoetan ere (telefonoz deituta, adibidez). Abuztuan, esate baterako, hainbat irteera egingo dira. Zumaiaitik 14:00etan eta

18:00etan abiatzen dira itsasontziak, kirol portutik (9. kaia), eta Debatik 15:00etan eta 19:00etan, pantalan bertatik. 10 euroko kostea du bidaiak -8 eurokoa hamabi urtetik beherakoentzat-.

Itsas-irteeren inguruko informazio gehiagorako, jo Debako Turismo Bulegora edo deitu 943 19 24 52 telefono zenbakira.

80.000 euroko diru-laguntza jasoko du Ekain Fundazioak

Gipuzkoako Diputatuen Gobernu Kontseiluak Ekain Fundazioari 40.000 euroko diru-laguntza osagarria ematea erabaki du. Diru-laguntza Ekainberrin egin behar dituzten konponketak egiteko dela zehaztu dute, "2008an jarritako estalki begetala ez baita nahikoa izan, hezetasun arazoak tarteko".

Hala, Aldundiko Kultura, Turismo, Gazteria eta Kirol Departamentuak 2015eko aurrekontuetatik guztira 80.000 euro emango dizkio; orain erabakitako diru-laguntza aurreko urteko inbertsioetarako emandako 40.000 eurori gehituko zaio.

Ekain Fundazioa izango da diru-laguntzaren onuraduna. Fundazioa Gipuzkoako Foru Aldundiak, Eusko

Jaurlaritzak eta Zestoako Udalak sortu zuten Ekaingo haitzuloaren erreplika kudeatzeko. 2008an ireki zuten Ekainberri, ondarea zaintzeko eta babesteko helburuarekin.

Oreinak kobazulo ingurura bueltatu dira

Bestetik, duela 14.000 urte bezala, Ekain kobazuloaren inguruetara oreinak bueltatu dira. Sinbolikoa da animalia hori ingurune horretan, kobazuloaren historiari erreparatuta betiere, eta uztailan lau orein eraman zituzten Ekainberriko lurretara. Irailera bitarte, Ekainberri hurbiltzen diren bisitariak oreinak gertutik ikusteko aukera izango dute.



Argazkilaria
Ander Salegi

(argazki erreportaiak, photoshop-eko erretakeak...)

Email: andersalegi@gmail.com

Tlf: 685 703 843



Jarri zure publizitatea
Berriketan aldizkarian!

Zuhatz

943 191 383
berriketan@zuhatza.com

Arratsalde pasa polita, elkarrekin jolasean



Uztailaren 7an "Hodei Magoa eta Tiritatxo" izan genituen bisitan zumardian, eta astebete beranduago (hilaren 14an) haurrentzako jolasek girotu zuten astearte arratsaldea herrian. Zuhatza Euskara Elkartearen ekimenez, adin ezberdineko haurrentzako joko eta jolasak gidatu zituzten Kolore Anitz Aisialdi taldeko begiraleek. Txikienak Simon Berasaluze plazan bildu ziren eta nagusiagoak zumardian aritu ziren jolasean: aurpegiak margotu, twisterra, boleibola, txinatar makilak, musika... Eskerrik asko ekimenera hurbildu zineten guzti-guztiori eta baita, nola ez, Kolore Anitz taldeari ere! Udalekuak goizez, jolasak arratsaldeaz... ederra izan da udan aisialdia euskaraz gozatzeko eskaintza aberasteko egindako ahalegina! Mila esker!

Zuhatza Euskara Elkartea



Badugu 2015eko Euskal Jaia iragartzeko kartela!

Datorren irailaren 26an (larunbata) ospatuko dugu garai berriko XVIII. Euskal Jaia Deban. Uda garaian murgilduta gauden honetan, eta San Roke festen atarian gainera, urruti samar ikusten da oraindik ere ospakizuna, baina dagoeneko abian daude antolatuta lanak. Horren adibide da, besteak beste, uztailean zehar Zuhatza Euskara Elkartek abian izan duen kartel lehiaketa.

Joseba Ander Madina debarrak egindako lanak iragarriko du aurtengo Euskal Jaia. Ez da kartel lehiaketa honetan parte hartzen duen lehenbiziko aldia, orain bi urteko edizioan bigarren postuan sailkatu baitzen gaztea.

Egun osoko egitaraua izango da iraileko azken larunbatean: dantzak, musika, marmitako lehiaketa, herri bazkaria, erromeria... Batzarrak ikasturte hasieran burutuko dira. Beraz, bada-kizue, adi ibili eta parte hartu deialdian, guztion laguntza eta parte-hartzea ezinbestekoa izango da eta!



JOSE A. GALDONA AIZPURUA

HORTZ-SENDAGILEA
Odontologia orokorra,
kirurgiak eta inplanteak

Hondartza Kalea, 20 - behea
Tel.: 943 192 819
20820 Deba



English Academy

NORTH STREET ENGLISH



Telf. 675 714 031 - Ifar kale, 15 - Deba

Abuztuak

14

Festen hasiera

18:00: San Roke festen hasiera.

Kanpai errepika eta udaletxeko bal-koitik **txupinazoa** botako dute San Roke festei hasiera emateko. Ondoren, Debako Martxaren soinuarekin **zapi gorria jantziko** zaio San Rokeri.

Jarraian: Kalejira, banda, txistulari eta Lizarrako Gaiteroekin (erraldi eta buruhandien laguntzaz).

19:30: Udalbatza elizara abiatuko da Alkate Soinua entzunez. Gure Kai Dantza Taldeak Erreberentzia eta Ezpata Dantza dantzatuko ditu. Ondoren, **Hilarion Eslavaren salbea** abestuko du Aitzuri Abesbatzak, Alaitz Urkiaren zuzendaritzapean.

22:30: Danborrada Ozio-Bide Elkartearen eskutik.

00:30: Erromeria TRIKIZIO taldearekin. Ondoren, DJ **David Deepression**.

Abuztuak

15

Umeen Eguna

09:30: Diana, Banda Gaztearekin eta Lizarrako Gaiteroekin.

10:30: Entzierroa, umeentzako.

12:00: Kalejira Luzaro eskolatik. Plaza zaharrea San Roke Txiki agurtuko da, bertsoak kantatuz eta San Roke dantza dantzatzuz.

Ondoren, desfilea plaza zaharretik zezen plazara.

12:30: Jaialdia: danborrada, herri kirolak, dantzak eta zezenak.

13:00: 2014ko abuztuaren 1etik aurtengo uztailaren 31ra bitarte jaiotako **haurrei zapi gorria** jarriko die alkateak udal pleno aretoan.

16:00: Puzgarriak plaza zaharrea (4-5 urte bitartekoentzat). **Puzgarriak eta Jumping-a** (5 urtetik gorakoentzat), Simon Berasaluze plazan. **Bubble Football** (9 urtetik gorakoentzat), zezen plazan.

20:00: Umeen pilota partidak (finalak), Aldats pilotalekuan.

23:30: Kontzertua, karpan: **Zea Mays, Skakeitan** eta **Zarpazo a Cicatriz**.

Abuztuak

16

San Roke Eguna

07:00: Diana, Musika Bandarekin eta Lizarrako Gaiteroekin.

08:00: Entzierroa. Ondoren, enbolatuak Marqués de Sakaren (Lasturko zezenak) ganaduekin.

09:30: Gure Kai Taldekoen **Ezpata Dantza** plaza zaharrea, San Rokeren irudiaren aurrean. Jarraian, Udalbatza beste herritar guztiekin batera ermitara igoko da prozesioan eta Meza Nagusia izango da. Ondoren, **Larrain Dantza** egingo da plaza zaharrea (Lizarrako Gaiteroekin eta erraldioen eta buruhandien konpartsarekin).

12:30: Aureskua Foruen Plazan, Gure Kai Dantza Taldearen eskutik. Ondoren, **enbolatuak** Marqués de Sakaren (Lasturko zezenak) ganaduekin.

Jarraian: Kalejira Eghoak txarangarekin, kaleetan zehar.

18:00: Bertso saioa karpan.

18:00: Umeentzako ekitaldia Simon Berasaluze plazan.

18:00: Zezenketa, Tamameseko (Salamanca) Puerto de San Lorenzo eta La Ventana del Puerto ganadutegietako idiskoekin. Ondoren, **enbolatuak** umeentzatzat.

Jarraian: kalejira musika bandarekin eta Lizarrako Gaiteroekin (erraldi eta buruhandien laguntzaz).

20:30: Dantzaldia adinekoentzat, Simon Berasaluze plazan.

23:30: Su artifizialak hondartzan (Pirotecnia Zaragozana).

23:45: Kontzertua, karpan: **The Soul Messengers**.

Abuztuak

17

Mariñel Eguna

06:30: Kardantxuloak Kantuan. Irteera plaza zaharretik.

10:30: Jorrai Dantza herriko kaleetan, Gure Kai dantza taldearen eta Kalez Kale Txistularien eskutik.

12:30: Sardina Freskue umeentzako ikuskizuna, Simon Berasaluze plazan.

14:30: Bazkari herrikoia, karpan.

17:00: Kalejira, Lizarrako Gaiteroak eta ORIA txarangarekin.

18:00: Entzierroa. Jarraian, gazte kuadrilen arteko jokoak plazan.

20:30: Kontzertua, Simon Berasaluze plazan: Eider eta Gorka Zabaleta anaiak (euskal kantak).

23:30: Kontzertua, karpan: Fooltime Lovers.

00:00: Larrain Dantza, plaza zaharrea.

00:30: Kontzertua, karpan: Oldarkor, Skaleak eta Eztengiro.

Abuztuak

18

Iparra-Hegoa
Deba-Kanbo

07:00: Diana, Musika Bandarekin eta Lizarrako Gaiteroekin.

08:00: Entzierroa. Ondoren, **enbolatuak** Marqués de Sakaren (Lasturko zezenak) ganadurekin.

10:00: Artisau feriarekin hasiera (15:00ak arte egongo da zabalik).

11:00: Ongietorria Kanboko ordezkarietara eta dantza taldeei.

11:30: Jubilatuen elkartearen Udalak eskainitako **hamaiketako** hirugarren adinekoentzat. Trikitilariak arituko dira, eta bitartean arratsaldeko zezenketarako 9 sarrera bikoitz zozketatuko dira.

11:30: San Lorentzoko Dantzanteen Kofradia (Iruñea) kaleetan zehar.

Ondoren, The Joselontxo's Txaranga kaleetan zehar.

12:30: Enbolatuak Marqués de Sakaren (Lasturko zezenak) ganadurekin.

18:00: Umeentzat ekitaldia, Simon Berasaluze plazan.


18:00: Zezenketa: Tamameseko (Salamanca) Puerto de San Lorenzo eta La Ventana del Puerto ganadutegietako idiskoekin.

20:30: Erraldoi eta buruhandien Agurra plaza zaharrea, Debako Banda eta Lizarrako Gaiteroekin.

00:00: San Rokeren irudiari ohiturazko zapi gorria kenduko zaio.


SAN ROKE AK 2015

Abuztuaren
14tik 18ra



DEBA
SAN ROKE JAIK
ABUZTUAK 14TIK 18RA 2015

Aurtengo jaietako kartela duzue goikoa. Jose Angel Ligeró Martinez (Alfaro, Errioxa) da egilea.



Agenda

Abuztuak 14-18

-San Roke jaiak. Egitaraua aldizkari honetako 16. eta 17. orrialdeetan duzue.

Abuztuak 28, ostirala

-19:30. **Azken ostirala.** Euskal preso eta iheslari politikoen eskubideen aldeko elkarretaratzea. Foruen plazan.

Irailak 5, larunbata

-Merkatu txikia, estalitako pasealekuan. Goizean.

Irailak 10-13

-San Nikolas jaiak Lasturren. Egitarau berezia egongo da.

Irailak 11, ostirala

-21:30. **Herritarrak: Ahots pianoz.** Herriko zenbait ahots bakarlarik eta pianojolek euskal kantu ezagunak eskainiko dituzte: Iparragirre, Sorozabal, A. Donostia... Plaza zaharrean izango da hitzordua (*Iturri ondoan*).

Irailak 18, ostirala

-21:30. **Herritarrak: Begiradak-2.** Jolasean ibili ziren iaz; irudiei hitzak jartzen, begirada desberdinak eskaintzen. Jolasean jarraitu dute aurten. Hitzei irudiak ipiniz. Irudiak ipiniz eta musika eta dantza gehituz... Zumardian ezarriko den karpan izango da hitzordua (*Iturri ondoan*).

Irailak 19, larunbata



-18:30. **Bertso saioa,** Zuhatza Euskara Elkartek eta Debako Udalak elkarlanean antolatuta.

Puntako lau bertsolari eta gai-jar-tzaile bat arituko dira saioan. Zumardian ezarriko den karpan izango da hitzordua. Sarrerak Turismo Bulegoan jarriko dira salgai, 8 euroan.

Irailak 25, ostirala

-21:30. **Herritarrak: "Ez dok amairu-Sentikaria".** Aurten betetzen dira 50 urte Ez Dok Amairu sortu zenetik. Orduko olatu hura birsortzen joateko urratsak eman nahian, sentikaria tau-laratuko dute herritarrek (kantuak, musika, dantza, olerkiak...). Zumardian ezarriko den karpan izango da hitzordua (*Iturri ondoan*).

XXXII. Udako Musikaldia
Santa Maria elizako klaustroan

-Abuztuak 20, osteguna:
Ensemble Diatessaron taldea.

-Abuztuak 27, osteguna:
Joaquin Asiain (tenorea) eta
Wolfgang Walter (pianoa).



*Oharra: Musikaldiaren baitan antolatutako emanaldi guztiak klaustroan burutuko dira. Iluntzeko 20:00etan emango zaie hasiera.

Erakusketak

-Aitor Etxeberria artistaren "Deabruaren kantuak" pintura erakusketa ikusteko aukera dago Santa Maria elizako klaustroan. Abuztuaren 31a arte egongo da ikusgai.

-Agirre Jauregiko erakusketa gelan Amaia Prietoren lanak egongo dira ikusgai abuztuaren 19tik 30a bitartean.



Amaia Prietoren lan bat.

Udako ordutegia liburutegian

-Ostolaza Udal Liburutegiak astelehenetik ostiralera, udako ordutegia izango du 9:00etatik 14:00etara izango da irailaren 7a bitarte. zabalik. Haur liburutegia, berriz, 10:00etatik 13:00ak arte.

*Liburutegi orokorra: berriz, 10:00etatik 13:00ak arte.

Euskal Jaia 2015



Irailak 26, larunbata:

Egun osoko egitaraua izango da: dantzak, marmitako lehiaketa, herri bazkaria, erromeria... Urtero legez, baserritarrez jantzi eta euskal giroan murgiltzeko deia egingo zaie herritarrei. Aurten, gainera, Euskal Jaiaren egitarauaren baitan, baina astebete lehenago, bertso saioa egingo da Zuhatzaren ekimenez. Beraz, adi! Guztion laguntza eta parte-hartzea ezinbestekoa izango da eta!

ZAINTZAKO BOTIKA

Egunez, 09:00etatik 22:00etara



Zalduegi: **abuztuak 21, 22, 23, 31.**
irailak 1, 2, 3, 18, 19, 20.

Burgoa Zuazo: **abuztuak 17, 18, 19, 20.**
irailak 4, 5, 6, 14, 15, 16, 17.

22:00etatik 09:00etara, Eibarren Azkue botika zabalik. Toribio Etxebarria, 4 (943 20 23 44)

DEBAKO BOTIKAK

ZALDUEGI: 669 262 201

BURGOA ZUAZO: 667 338 890

Larunbat goizetan beti bat irekita:

ZALDUEGI: abuztuak 22 eta 29
irailak 19 eta 26

BURGOA ZUAZO: abuztuak 15 / irailak 5 eta 12

9:30 - 13:30



Ostolaza Kalea 25.
20820 DEBA (Gipuzkoa)
Telf.: 943 191 818



ZALBURDI

Plaza Arakistain - DEBA Tel.: 943 19 20 03

Mikel

- Iturgintza
- Berogintza
- Gasa
- Altzariak
- Osagarriak

Mobila: 699 975 206
Tel.-faxo: 943 191 774
Hondartza, 10 - behea
20820 DEBA (Gipuzkoa)
mikeliturgintza@euskalnet.net
www.mikeliturgintza.com

**A
D**

ASESORIA DEBA C.B.

JURIDIKOA - LABORALA - FISKALA - ASEGURU KONTABLEA- HIGIEZINAK

Miren Lore: 669 895 617
Edurne: 669 895 619

Tel.: 943 192 127
HONDARTZA, 2 - BEHEA Fax: 943 192 482
20820 DEBA (GIPUZKOA) ase.deba@teletelne.es

atari
etxebizitza zerbitzu integrala

SALMENTA, ALOKAIURUAK, ABOKATUA
Lersundi 1, behea 20820 - DEBA
Tel: 943192263
www.atarideba.com

Lizaso
Autozerbitzua

Lersundi kalea, 31
Tlfnoa: 943 19 27 29



Hondartza ondoan
Urte guzitan zabalik

Nafarroa Plaza • Tlfnoa.: 943 192 576
20820 DEBA

oskarbi



Pintxoak
Ogitartekoak
Plater Konbinatuak

Lersundi Kalea, 9
Tel: 943 192 482 - 943 644 014
20820 DEBA (Gipuzkoa)

ALBIZU
HARATEGIA

Lersundi kalea, 27 - 943 19 14 47 - 20820 DEBA (Gipuzkoa)



Ostolaza, 5
DEBA
Tel.: 943 191 197

IZENBE

- Gosariak
- Txikiteoa
- Pintxoak

Itur kalea • Tlfnoa.: 943 192 473 • 20820 DEBA



Seven Clowers
Irish pub

Gozatu gure garagardoa
Hondartza, 11 • 20820 DEBA • Tel. 943 191 295



Bar LOREA

"Orotariko tartak etxean eginak"

Angulero kalea • 20820 DEBA • Tlfnoa.: 943 191 095



Lersundi, 28
Tel.: 943 191 206
Deba (Gipuzkoa)

Bordatxo
JATETXEA

BEREZITASUNA PARRILAN:

- Asteburuko menuak - Parrilan menuak - Mokadu eta pintxoak
- Plater konbinatuak - Etxera eramateko jakiak - Ospakizunak

Zesterokua Plaza
Tel.: 943 029 376
Bazkariak: 13:00 / 16:00
Afiariak: 20:00 / 23:00



LANTALDE PROFESIONAL BIKAINA IZEN-ABIZENEKIN



Abuztuan irekita

ZERBITZU INTEGRAL AKREDITATUA

ETENGABEKO ORDUTEGIA



Astelehenetik ostiralera:
8:00etatik **22:00**etara
Zapatuetan:
10:00etatik **14:00** etara

Doctor **Antonio Murillo**

Hezur Birsorkuntza eta ehun bigunen Maneiuko Zuzendaria. **Lleidako Unibertsitatea eta Madril.** Periodontzia Koordinatzailea, Odontologian Lizentziatua. **Alfonso X.a Unibertsitatea. Madril.** Implantologia Masterreko Irakaslea. **Lleidako Unibertsitatea.** Kirurgia Masterreko Irakaslea. **Salamancako Unibertsitatea.** Unibertsitate Instituzioetako Irakasle gonbidatua. **Madrilgo Unibertsitate Konplutentsean eta Bartzelona, Sevilla, Almeria, Lleida, Leon, Malaga...** Unibertsitateetan.

Doctora **Ainhoa Zulueta**

Odontologian Lizentziatua. **Euskal Herriko Unibertsitatea.** Unibertsitate Aditua Aho Kirurgia, Periodontzian, Implantologian. **Leongo Unibertsitatea.** Diplomata Aho Kirurgia. **Bartzelonako Unibertsitatea.** Hortz-Estetikan Diplomata. **Madrilgo Unibertsitate Konplutentsea.** Hortz-Estetikan Diplomata. **Autran Institutua, Bartzelona.** Etengabeko Formakuntza. **New York-eko Unibertsitatea.** Oklusioan Graduondoa. **Anibal Alonso Doktorea.**

Eibarko Dendarien Elkarte
ABANTAILA HANDIAK ELKARTEAREN TXARTELAREKIN ORDAINDUZ
Galdetuiguazu!



MUTUAK ETA ASEGUURAK
GLOBAL CARD, OCASO, EMESA PREVENCIÓN, CARREFOUR LIFE, AZKARAN, FRATERNIDAD, IMQ, SANTA LUCÍA, PREVISORA BILBAINA, AEGONSTONEBRIDGE, AVANTSALUD, PADI...
Galdetuiguazu!



IRAZABAL
clínica dental

FINANTZIAZIO BEREZIA

Abantaila ekonomiko handiak eta finantziario aukera ezinhobeak. **GALDETU**

Julián Etxeberria, Nº 12 - 1º - 20600 EIBAR - Tel.: 943 20 85 52 - www.clinicairazabal.com